

ADITZA BATZEKO BATZORDEAREN HISTORIAZ ZERBAIT

76-X-26
Xabier Kintana

Euskaltzain jaun-andreok:

Aditz batzordearen kide naizen aldetik, erabat harriturik utzi nau Euskaltzaindiaren aldizkariaren azken zenbakian (Euskera, XXII, 2. aldia, 1977.eko uztailetik abendura, 667-672. horr.) agertu den artikulu batek, hemen aipatu nahi dudanak, hain zuzen.

Duela bi urte, euskaltzainburuak aditz batzorderako idazkari den Patxi Altunari, gure batzordearen historia egitea eskatu zion, horrela, Euskaltzaindiaren historiarako, aditzaren batasuna bezalako arazo batetan zer nolako prozedura eta erabideak erabili genituen azal zezan. Eskari bidezko honi erantzunez, Patxi Altunak, 1975.eko uztailaren 29an, Donostian, Euskaltzaindira bere txostena agertu zuen. Hura irakurtzean, ordea, Berriatuak eta biok zenbait punturekin ez gentozela bat adierazi genuen.

Izan ere, Patxi Altunaren txostenean, euskaltzainburuak eskaturikoarekin eta idazkari bategandik espero izateko den objektibotasunarekin, gure eritziz behintzat, inondik ere akort ez ziren uste pertsonal eta balorapen subjektiboak ageri ziren. Alde batetik, guk geuk ez genekusan zergatik aipatu behar ziren bertan Gabriel Aresti defuntuaren humore eta izaerari buruzko kontu badaezpadako batzu, ez eta, behialako Euskal Idazleen Elkartearen izenean argitaraturiko *Batasunaren Kutzako* zinak edo Mitxelena jaunaren "Lan hautatuak" deritzon liburuko eritziak ere, berauk guztiok batzordetik kanpoko arazoak izanik.

Gure oharrak aditzean, bertan zeuden euskaltzainek

arrazoia eman ziguten, Patxi Altunaren txosteneko zenbait puntu kentzea erabakiz.

Nolanahi dela ere, Donostian erabakia ez bezala, ustekabea noski, *Eusker*a aldizkarian Altunaren lana zegoen zegoenean eman da argitara, eta jadanik hor dago, historia-rako, Euskaltzaindiaren txosten ofizial gisa. Beronen aurrean, jakina, ezin nagoke ixilik. Alde batetik, beharrezkoa iruditzen zait Euskaltzaindiari txosten horri buruz lehen hartu zen akordioa betetzeko eskatzea, horretarako horko eritzien erantzunkizuna argituz, eta, bigarren, hor pertsona biren izenak zin-hausletzat iraintzen direnez gero, jadanik bere defentsa pertsonalki egiterik ez duenaren eta neronen izenean, zenbait salakuntza, 667-670. horrialdeetakoak bereziki, azalduz.

1969.eko Irailean, oso oker ez banago, Arantzazuko batzarrearen ondoan Euskaltzaindiak batasunerako bidean aurrerago joateko asmo garbirik ez zuela ikustean, zenbait idazlek, geure kontura, bilera bat egin genuen Baionan. Hartan, oraindik batzeko zeuden puntuen artean, aditza ukitu zen eta orduantxe hasi eta hurrengo bileretan ere arazo berbera eztabaidatu genuen. Lapurtar eta nafar-giputz aditz laguntzaileen arteko istiluan akordiorik ez genuenez gero, 1970.eko Martxoaren 29an, proposamen gisa, Euskal Idazleen Elkartekook, liburu batetan aditz sistema biok argitaratzea erabaki genuen, handik eta 1971.eko Abenduaren azken egunerarte, Mitxelenari haiez bere eritzia emateko denbora emanik, beronek hobetsiko zuena guztiok onartuko genuela zin eginez. Aipatu epea bukatu aurretik baina, Euskaltzaindian hauteskundeak egin eta, euskaltzainburu berriarekin, batasuna aurrera eramateko pauso ofizialak berriro hasi ziren, eta 1971 urtearen hasieran, aditza batzeko batzorde bat izendatu zen, gu hartan geundelarik.

Euskaltzaindiak aditzaren batzordea jartzean, bistan zegoen, Akademiak kanpoko bilerak alde batera utzi behar ziren. Harez gero, Euskaltzaindiaren aginduz eta hautaz izendaturik geundenok, batzorde batetan bildu eta eztabaidatzeko beharkia hartzen genuen geure gain. Zinak eta horrelakoak Euskaltzaindiarena moduko epaibide bat ez zenerako irtenbidetzat ongi zegokeen, baina ordurez gero gauzak, geure eritziz bederen, aldatuak ziren. Eta hau ez zen Arestiren

eta neronen uste pertsonala bakarrik. Behin batean, Bilboko bilera batetan geundelarik, norbaitek zinaren arazoa aipatzean, Arestik berak Mitxelenari arazo hori gogora erazion, beronek hura "alde batera utzi beharra zegoela" erantzunez. Alfonso Irigoyenek, bestalde, Euskaltzaindiaren batzordetik kanpoko zinak eta entzutean, bere protesta goraki agertu zuen, bertan geundenok *argudio eta arrazoiez* aditza aztertzekeko izendatuak ginela esanez, eta aldez aurretiko erabakiak hartzera joatekotan, aski zatekeela Mitxelena bera bakarrik izendatzea, besteak haren eritzira kondiziogabeki makurtuko baziren. Mitxelenak berak, jakina, ez zeritzon bidezko jokabide horri eta batzordeak, horrela, bere lana normalki hasi zuen, paradigmatik xeheki aztertuz.

Historia, neronen ikuspegitik, hauxe da eta ez du, iruditzen zaidanez, Euskaltzaindiarekin zer ikusi handirik. Horregatik oraindik ulertzeke nago, bestela esan arren norbaitezuri mina emateko eta zauriak berretzeko ez bada, zertarako sartu behar ziren txosten horretan Euskaltzaindiaren Aditz Batzordearenak ez diren kontuok, ez eta eskutitz partikular batzu ere, gure batzordearen historia egiteko atxakiaz. Hortik hasiz gero, batzordekide bakoitzaren ideologia, erlijioa, helburu politikoak eta gustu pertsonalak ere sartu beharko liriateke —eta hau ere, zoritxar haundiz, Euskaltzaindian egin nahi izan da!— Akademiaren ageriak mundutar aldizkari baten gisako zer bait bilakatuz.

Ez da seriosa, ene ustez, bide hori eta batzordearen idazkariari, toki guztietan bezala, aseptikotasun handiagoa eskatu beharko litzaioke, hasteko, honelako gertakariak balorpen pertsonalik gabe eta *hirugarren* pertsonan kondatzen ohi direla gogora eraziz. Besterik ez.